AITZINA **Editorea:** Fermin Munarriz. **Koordinatzailea:** Mariasun Monzón. **Abolkularia:** Iñaki Egaña. **Diseñatzailea:** Juan Luis Napal.
**Helbidea:** Rincón de la Aduana, 18 behea. 31001 Iruñea. **Tlfnoa.** 948-21 99 99. **Faxa:** 948-212329. **E-mail:** aitzina@haika.net

NORANTZA

JOSU ERGUIN
Digital Mobiles WWW.digitalak.com-eko zuzendaria

# «Gure helburua euskal kate bat egitea da»

Asko aldatu dira gauzak Digital Mobiles jaio zenetik gaur arte, eta ez bakarrik garai horretan telefonia mugikorrik ez zegoelako, baizik eta teknologia berriek egun gauza berriak egiteko aukera handia ematen dutelako, baita telebista edo kate bat antolatzeko ere.

BEGOÑA SIMON

**Zer da Digital Mobiles?**

Orain dela 12 urte sorturiko enpresa bat da. Garai hartan bideo digitala egiten genuen, eta telebistako programak ere. Argi utzi nahi dut ez daukala zer ikusirik telefoniarekin. Jaio ginenean ez zegoen telefonia mobilik eta gu tresna digitalekin ibiltzen ginen alde batetik bestera, horregatik jarri genion izen hori. Egun konturatu gara izen horrek konfusioa sortzen duela eta kendu nahian gabiltza eta www.digitalak.com izena jarri. Mobilesko b hori ingelesetik dator, ez dago beste esplikaziorik.

**Lasarten duzue bulegoa, zein programa egiten dituzue hor?**

Hemen Argiñanoren programak egin dira, Subijanaren programak, Castillorenak, Portugalerako batzuk eta Espainiarako beste batzuk. Formula 1en lasterketan egon gara, Motorismo Sari Handian ere, eta hainbat eta hainbat kirol proba handitan. Programa batzuk enkarguz egiten ditugu eta beste batzuk esponsor baten bidez.



CONNY BEYREUTHER

**Euskal Herrian dagoen merkatuan saltzen dituzue zuen produktuak edo Euskal Herritik kanpo?**

Gehiengoa kanpoan saltzen dugu, Euskal Herrian, ETBtik kanpo, merkaturik ez dagoelako, eta ETBk bi kate besterik ez du. Bi kate horietako programazioko zati bat ETBk dituen estudioetan egiten da eta beste zati bat enkargatzen da.

**Badago aukerarik merkatu hori zabaltzeko?**

Jakina, hor baitago telebista digitala. Orain arte Euskal Herrian oso lan gutxi egin da esparru horretan, baina teknologia berri asko bertan dugu, eta, adibide bat jartzeko, lurrezko telebista digitala edo hertziana aipatuko dut.

Hor euskaldunok merkatu oso zabal bat izango dugu.

**Aukeratzeko ahalmenik bazenu, zein programa grabatuko zenuke?**

Bidaien gaineko programa bat eta informatikari buruzko bat. Bidaien gainekoa euskaldunok oso bidaiariak garelako eta egun daukagun eskaintzan halako programarik ez dagoelako, eta informatikakoa Euskal Herrian halako programarik ez dugula uste dudalako. Euskal Herriko gazteak mundu horretan buru-belarri sartuak daude eta, nire ustez, gaztediari erantzuna eman behar zaio.

**Etorkizunari begira, zein plangintza ditu Digital Mobilesek?**

Gure helburua euskal kate bat egitea da. Euskaldunok euskaraz bizi nahi dugu eta eskubide hori dugu, baina erdarazko –eta berdin zait zein erdara den– ehun bat kate dugu eta bakarra euskaraz.

Gu lan horretan gabiltza, euskal kate hori diseinatzen ari gara eta nondik nora joan beharko duen zehazten.

Hori lortzeko dauden sinergiak aprobetxatu behar ditugu, eta horietako bat ETB da. Guk uste dugu Euskal Herrian hori egitea posible dela.

ZIRTOKA



TXILLARDEGI

## Ermua otoi !

Izugarrizko indarra dute modek. Errepikapenaren ondorioz, oraingoa ere sendo dator: «el proceso de paz en curso» irakurtzen dugu jai eta aste; are batzuek sinesten ere.

Non da, ordea, «bake prozesu» hori? Ez baitago aztarnarik ere. Bakea eraikiko bada, bakea hautsi zuten faktoreen ezabaketatik hasi beharko da.

Hots, hemen orain dela bi mende sortu zen gerrate anizkunaren etenunea oso ezaguna da: Euskal Foruaren ezeztapenak piztu zuen geroztikako gudu hau. Eta Euskal Forua, funtsean, euskaldunon Auto-Gobernua zen...

Zertan da beraz Auto-Determinazio Eskubidea? Non ari da bideratzen? Non ari da koloka jartzen Espainiaren eta Fraintziaren zatiezintasuna? Non sumatzen da militarki okupatutako herrialdeetatik indar okupatzaileak erretiratzeko zantzurik batere?

Zapalketaren gainean eraikitako «ordenua» ez da bakea. Mila aldiz esana.

Zertan da, bide bertsutik, zapalketaren ondorioz irekitako zauriak sendatzeko asmorik? Gartzeletan usteltzen ari diren gudari presoen askatzea, noizko? Irlandan, akordio osoak sinatu baino lehenagotik ere, kalera irten dira presoak trumilka.

Hemen ez. Hemen, beren legearen beraren gainetik, presoak «terrorista» deitzen dituzte beti, eta senitartekoek,eskubide guztien aurka, han eta hemen, zafraturik eta kolpaturik segitzen dute. Non ageri da oinazeak ematzen hasteko asmorik?

Horrelakorik ezertxo ere ez. Hemen, «Frente Policial Franco-Español» delakoa, bai. Hori, sendo. Bai gazteak ez-ezagunak mugaz bi alderdietan harrapatzeko, bai buruzagiohiak (Txelis kasu oraingoan) elkarren eskuetan jartzeko.

Hemen ez dago bake-prozesurik. Hemen ETAren etenaldia dago bakarrik. Irlandako prozesua hemen? Hemen Ermua amets, eta polizi-zapalketa helburu bakar.

# AITZINDARIAK

